

OROIMINAREN HAIZEA

*Ya para entonces me había dado cuenta de
que buscar era mi signo, emblema de los que
salen de noche sin propósito fijo, razón de los
matadores de brújulas.*

J. Cortazar

Urduri lokartu nintzen gau hartan. Ezin nuen lorik egin. Berak bidalitako audioa jarri nuen. *Asko gutsut*, esaten zidan. Marcok ez daki euskaraz. Baina nik gauzak erakusten dizkiot pixkanaka. Bero jartzen nau bere ahots grabeak. Bere ahots sakonak. Are gehiago euskaraz aritzen zaidanean. Egun hartan ere, bero jarri nintzen. Eta horrek urduriago jarri ninduen. Eskua hankartean sartu nuen. Eta bera irudikatu nuen bere gelan, Portugaleten, gauza bera egiten. Hainbeste gustatzen zitzaidan pijama laukidunarekin. Prakak laburrak. Banekien oso arraroa zela egun hartan praka motzak izatea, negua baitzen. Hemen, Cordoban, ordea, uda. Bero egiten zuen hemen. Han hotz egingo zuen. Baina pijama horrekin irudikatu nahi nuen eskuaz ikutzen. Horrek asko berotu ninduen. Berataz pentsatuz korritu nintzen. Lasaitu nintzen. Lokartu nintzen.

Bi hilabete neramatzan bera ikusi gabe eta faltan botatzen nuen. Gainera, banekien bera ez zela ondo pasatzen ari eta min ematen ziola urrun egoteak. Ni Argentinan nengoen, Txiletik, bere herrialdetik, gertu, nire ametsa betetzen, olerkiak xuxurlatzen, literatura tailerrak ematen... Oraindik beste bi hile egongo nintzen hemen. Bera Euskal Herrian zegoen, doktoretza puta hori egiten, lan eta lan, emango zioten ez

zekien beka hori lortu nahian. Agobiatuta zegoen. Eta nik ere ezinegon hori sentitzen nuen. Ezin nuen ebitatu.

Berak orain zuenaren antzeko sentsazioa izan nuen nik ere aurreko urtean bera lau hile Txilera itzuli zenean. Gaizki sentitzen zen Euskal Herrian eta indarra behar zuen. Bere gurasoekin ez zen oso ondo moldatzen, baina bere amona izugarri maite zuen eta berarekin igaro nahi zuen denboraldi bat. Ni masterra bukatzen gelditu nintzen, Gasteizko negu hotzean murgildurik, hotzago zena bere besarkadarik gabe. Niri kostatu egin zitzaidan bere erabakia ulertzea. Eta onartzea. Teoriaz ulertzen nuen, *Piedra y camino, de un sueño lejano y bello, vida, soy peregrino*. Baina gorputzari kostatzen zitzaion berarekin hitz egin baina ikutu ezin izatea. Orain, ordea, ni nintzen abiatzeko gogoak izan zituena. Eta orain bera zen ulertu behar zuena. Eta bere gorputza zen hotz zena.

Urrun geunden. Baina ez geunden urrun. Berak sinkronizitate hitza erabiltzen zuen askotan gertatzen zitzaiguna azaltzeko. Berataz pentsatuz masturbatu nintzen gau hartan hurbil sentitzen nuen, oso hurbil. Eta hurrengo egunean bere mezu bat jaso nuen. Bertan kontatzen zidan aurreko gauean ezin zela lokartu eta erlaxatzeko masturbatu behar izan zela. Nik ere nirea kontatu nion. Laster erantzun zidan. Ilargi beteko gau hartan, negua zen arren, bero egiten zuen Euskal Herrian. Eta udako pijama jantzi zuen. Sinkronizitatea. Konplizitatea.

Bakarrik sartu zen Ana aretora. Egun hartan ez zuen inorekin hitz egiteko gogorik. Pozik zegoen berak eta bere kideek egiten zuten lanarekin. Harro sentitzen zen hainbeste biloba aurkitu izanaz. Baina ezin zuen sentsazio gazi-gozoa sahiestu. Oraindik ez zeukan Daviden arrastorik. Non egongo ote zen? Zertan arituko ote zen? Egun hartan ez zuen inorekin hitz egiteko gogorik. Baina bakarrik egoteko gogorik ere ez. Ez zuen bere barneko itzalekin egoteko gogorik.

Aretoan sartu eta bi neska gazteren alboan eseri zen. Euren artean ez zuten gaztelaniaz hitz egiten, beste hizkuntza batean baizik. Anak ez zekien zein zen hizkuntza hura. Argiak itzali ziren eta bi emakume irten ziren. Bata handia eta iletzuria. Bestea txikia eta beltzarana. Biak berrogeita hamar urte ingurukoak. Bata Nené, Atahualpa Yupanki abeslariaren emaztea. Bestea bere itzala, alter egoa, Pablo del Cerro. Izan ere, emazteak pianoaz konposatu izan zituen Yupankiren abesti batzuk eta ondoren gizonezko ezizen horrez sinatu, garai hartan ez baitzegoen ondo ikusia emakume batek konposatzea, are gehiago publikoki erakusteko bazen.

Antzezlanak ez zeukan gauza handirik, bi emakume horien arteko elkarriketa baino ez zen. Baina Ana hunkitu egin zen. Eta eszena hartan negarrez bukatu zuen, *estás sola, a la sombra*, oihukatzen zion itzalak Nenéri, berak negar egiten zuen bitartean. *ESTÁS SOLA, A LA SOMBRA!!!* Alboko neskatila ere negarrez somatu zuen. Zergatik egingo zuen neskatila gazte horrek hainbeste negar? Neskatila besarkatu nahi zuen, *tranquila, no estás sola*, esan. Baina egia zen, jendez inguraturik egon arren, neskatila hura ere, bera bezala, bakarrik zegoen.

*V*írgala para una sombra, itxura ona zuen antzezlanak. Iratik eta biok joatea erabaki genuen. Iratiri ez zitzaion askorik gustatu. Motelegia iruditu zitzaion. Ni hunkitu egin nintzen. Andra iletxuridunarekin identifikatzen nintzen, ni baino hogeit bat urte gehiago izan arren. Bere bakardadea neure sentitzen zuen. Maitearengandik urrun egoteak sortzen zion antsietateak urduritu ninduen. Marco etorri zitzaidan burura. Banekien neuk hartu nuela erabakia, baina faltan botatzen nuen. Berarekin egondako azken egun horiez pentsatzen nuen bakoitzean bere besoen falta sentitzen nuen, bere muxuak sentitu nahi nituen nire azalean, bere usaina usaindu. Bere limoi itxurako aurpegia ikutzeko eta muxuz betetzeko gogoak nituen. Negarrez hasi nintzen, *estás sola, a la sombra*, esaldia entzun bezain laster. Barnean nuen korapiloa askarazi zidan esaldi horrek.

Alboko emakumea ere negarrez nabaritzen nuen. Lehenago ez nintzen bere presentziaz ohartu, ilun zegoen gela eta neure pentsamenduetan eta antzerkian murgilduta egon nintzen une horretararte. Zer gertatuko ote zitzaion? Argiak piztu zirenean, ordea, begiak ziku zituen. Nik ere bai. Errazagoa da iluntasunean negar egitea. Begietara begira gelditu ginen une batez. Marcoen begirada gogorarazi zidan. Iluna. Eta galdua. Zerbaiten bila egongo baliz bezala. Bila bizi denaren begirada zuen andra horrek.

Marcoz ere beti pentsatu izan dut gauza bera. Bila bizi da. Eta sekula ez dio bilatzeari utziko. Ez delako bere begiek erakusten diotenaz konformatzen. Beti dago haratago begira. Eta hori da, hain zuzen ere, maitemindu ninduena. Bila egoteagatik joan zen Txiletik. Bere familia diruduna zen. Nahi zuen guztia izan zezakeen Txileko hegoaldeko herri hartan bizitzen geratu izan balitz. Baina ez zuen nahi izan. Inoiz ez zen bere gurasoekin identifikaturik sentitu. Askotan esaten zidan bere familia ez zela

sentitzen zuela, ez zeukatela ezer amankomunik. Hortaz, motxila hartu eta Bartzelonara alde egin zuen. Ondoren, ni ezagutu eta Euskal Herrira etorri zen. Baina oraindik ere bila dirau. Ez daki zeren bila. Baina zerbaiten bila. Eta bilatzen jarraituko du, heriotzak bera aurkitzen duen unerarte.

Bi alaba zituen Anak: Celeste eta Ximena. Lehenak 22 urte zituen, bigarrenak

18. Celestek Partido Revolucionario de los Trabajadores delakoan militatzen zuen. Bere mutilaguna, David, ere bertan ari zen. 1976ko martxoan atxilotu zuten lehen aldiz, Alta Cordobako bere etxean. Egun batzuk baino ez zen egon desagertuta, baina nahikoa izan zen Anaren gorputzean beldurra sartzeko. Egun batetik bestera bere alaba desagertu ahal zela bizi izan zuen bere larruan.

Egun hartatik aurrera ezin zuen ia lorik egin. Beldur zion amesteari. Beldur zion bere buruari aske uztean ikusi ahal zituen irudiei, sentitu ahal zituen sentazioei. Baina beldur handiagoa zion errealitateari, konturatu baitzen bere buruak sortu ahal zuen edozein ametsgaizto baino gordinago izan ahal zela errealitatea.

Celeste, ordea, lasai azaltzen zen bere amaren aurrean. Berari egindakoa beldurra sortzeko trikimailua baino ez zela esan eta lasai egoteko, ez zitzaiola ezer gertatuko. Lasai azaltzen zen. Baina bere begiek ez zuten gauza bera islatzen. Atxilotu zutenetik begirada aldatu zitzaion. Orain, torturatuak izan direnek duten begirada zuen. Galdua, eta Celestek, gogor saiatzen zen arren, ezin zion bere amari begirada izkutatu.

Haurdun zegoen Celeste. Sei hile eta erdi zegoenean berriro atxilotu zuten. David ere. Eta Anak ez zuen berriro bere alaba ikusi. Ez zuen bere biloba ezagutzeko aukerarik izan. Oraindik ere bere bila dirau.

Celestek bazekien atxilotu egingo zutela, amari ezer esaten ez zion arren, jarraitzen zutelako susmoa zuen. Aurreko egunean elkarrekin bazkaldu zuten. Jaioko zen umeak hitz egiten hasi ziren, mundura etortzean biziko zuen errealitateaz. Ez ziren garai errazak ume bat hezitzeko. Ohean etzan zen Celeste siesta egiten. Soniak, aurpegia laztantzen zion bitartean, txikitan abesten zion abestia oparitu zion alabari. Duela asko ez zuela abesten Anak. Atzamarraz alabaren aurpegia zeharkatzen zuen. Marraztu egiten zuen. Irribarre egin zuen. Celesteri eskolan beti esan zioten limoi itxurako aurpegia zuela. Eta egia zen. Atzamarraz alabaren aurpegiko ezaugarri guztiak birgogoratu zituen, sekula ez ahazteko.

Celestek begiak itxi zituen. Lo zegoela zirudien. Baina Ana laster konturatu zen ez zegoela lo. Bere ezkerreko begitik malko bat hasi baitzitzaion irristatzen. Arin kendu zuen eskuaz, begiak zabaldu gabe. Disimuloz. Hurrengo egunean atxilotu zuten. Soniak ez zuen berriro bere alaba ikusi. Ez zuen bere biloba ezagutzeko aukerarik izan. Oraindik ere bere bila dirau.

Atahualpa Yupankiren emazteari buruzko antzerki hori ikustera joan eta hurrengo egunean, Cordobako *Cyspren* dokumentazio zentrotik ateratzen ari nintzela, mobilean bere e-maila jaso nuen. “Emakumeen kontakizunak” Santurtziko udaletxeak antolatzen zuen kontakizun laburren lehiaketari buruzko informazioa bidali zidan

Marcok. *Emakumeak herritarren partaidetzan eta garapenerako laguntzarekin lotutako gaietan duen papera nabarmentzen duten kontakizunak*. Sinkronizitatea berriz ere. Minutu batzuk lehenago, *Cysprenean* egunkariak irakurtzen ari nintzela, emakume horiei buruz idatzi nahi nuela erabaki nuen. *Abuelas de mayo*. Askotan entzunak nituen, baina Sonia izeneko emakume horri buruz irakurtzean hunkitu nintzen. Gainera, argazkia ikustean, antzerkian nire alboan eseri zen emakumea zela ikusi nuen. Begirada hura iltzaturik nuen buruan. Sonia Torresen alboan izan nintzen eta ez nuen jakin.

Berari buruz idatziko nuen, baina ez nuen bere izena jarriko. Gehiegizkoa iruditzen zitzaidan izena ere lapurtzea nire ipuina egin ahal izateko. Gainera, horrela irakurleak ez zuen nori buruz idazten ari nintzen jakingo eta ez nion errealitateari hain fidel izan beharko, Soniaren istorioari fikzio elementuak sartzeko lizentzia izango nuen. Ana jarriko nion, Cordobako nire pisukidea bezala. Ana izango zen nire ipuineko protagonista.

Estela de Carlottok, amonen taldeko lehendakariak, bere biloba aurkitu zuen eguna historikoa izan zen Argentinan. 2014ko abuztuaren 5a. Itxaropen handia piztu zuen guztiengan. Biloba euren Buenos Aireseko bulegoan aurkeztu eta ADN froga egiteko eskatu zuen. Baiezkoa. Aurkitutako 114. biloba.

Askotan amestu zuen Anak bere bilobak gauza bera egiten zuela. Euren Cordobako bulegoan gizon gazte bat sartzen den bakoitzarengan Daviden aurpegia bilatzen du. Celesteren begi ilunak, bereak bezalakoak. Celesteren limoi itxurako aurpegia. Celesteren ezpain lodiak. David bilatzen du. Baina ez du aurkitzen. Horrela

gertatzen zaio Celeste desagertu zen egunetik. Bilatzea da bere patua. Bilatzera kondenatua dago.

Lehenengo bere alabaren bila, kartzela batetik bestera. Galdetuz. Erantzunik jaso gabe. Laur urte igaro ziren arte ez zion bere buruari onartu bere alaba hil zutela, ez zuela berriz ikusiko. Orduan David aurkitzea bilakatu zen bere helburu bakarra. Horretarako bizi zen. Ezin zen hori lortu gabe hil. Polizia etxeetara joan zen, epaitegietara, kartzeletara, baina inon ez zioten ezer esan. Beste amonekin elkartzen hasi zen. Elkarri informazio ematen zioten. Bakoitzak ahal zuena egiten zuen. Behin batek esan zion Txilera eraman zutela David, hango familia dirudun batek hartu zuela. Baina ez zekien egia zen ala ez. Eta egia bazen, ez zekien Txileko zein zonaldera eraman zuten David. Bilatzea zen bere patua. Bilatzera kondenaturik zegoen. Baina bide hori harriz beterik zegoen. Eta harri horiek banan-banan kentzera dedikatu ziren amona hauek.

Eta gauza asko lortu zituzten. Sare erraldoia sortu zuten, gaur egun langile espezializatuak dituen (abokatuak, detektibeak...). Eurretan batzuk hil ere egin zituzten diktadura garaian informazioa pasatuko zuten beldur zirelako. Baina amona talde honek aurrera jarraitu zuen eta ehun biloba baino gehiago aurkitzea lortu izan du. David, ordea, desagerturik dirau. Beno, David da Anak jartzen dion izena, Celestek bere haurrari jarriko zion izena, baina edozein izen izan zezakeen. Edonor izan zitekeen Anaren biloba. Edo inor ere ez.

Hegazkinean idatziko ditu Haizeak bere ipuineko azken lerroak. Etxera doa bueltan. Euskal Herrira. Ipuin honen bidez amaiera emango die kanpoan egon den lau hilabetei.

Hilabete hauetan bere ametsei gorputz ematen ibili dela sentitu du. Eta ondo sentiarazten du horrek, bere buruaz harro. Soniarengan pentsatzen hasi da orduan. Amorrua ematen dio hark oraindik bere ametsa ezin izan duela bete pentsatzeak. Inpotentzia. Lagundu ahalko balio bere biloba aurkitzen. Non dagoen jakingo balu. Non egongo ote zen? Auskalo. Agian oso urrun. Edo agian bere begien aurrean. Begiak itxi eta lo geratu zen. Marcoren limoi aurpegiarekin amestu zuen. Eta hodeien artean bezala sentitu zen.